

Zorionak. Harresia erori da. Gora Lurraldea

DUELA bost urte t'erdia sortu zen Koordinakundea. Jakin gabe, bere lehen egunetan, erakunde hasiberri hori bidai luze baterako prestatzen ari zen. Koordinakundea, hastera zihoan bidai ezezagun horretarako, argudio, arrazoi, ilusio eta laneko erramintekin kargatutako motxila prestatu zuen. Bideak berak erakutsi zigun ekipaia hain garrantzitsuak ez ziren gauzak sartu genituela, eta sartu gabeko beste batzuk behar izango genituela. Horrela, Lurraldeak bere ibilbide guztian berriztatze eta aldaketa eten-gabeak egin ditu.

Bidaia hasi eta gutxira, urte t'erdia geroago, 1986ko udazkenean, gure lehen alegazioak ontzat hartu ez zituztenean, Gipuzkoan zein Nafarroan, ulertu genuen aurrean harresi lodi eta altua genuela, instituzioen inposaketa eta prepotentziaren harresia. Laster konturatu ginen harresi horren zaintzaileek utziko zigutela ibiltzen harresiaren luzeran, bere zabalera amaigabea; baina ez digute utzi inoiz zeharkatzea. Alegia, utziko ziguten nolabait aurka egiten, baina beti harresia aurrez aire izango genuen, eta gure argudio eta arrazoiak ez zituen kontutan hartuko harresiaren beste aldean dagoen instituzio ahalguztidun eta adieraztezinak.

Lurraldea konturatu zenetik aurrean duen harresiaren sendotasunaz, ahalegin eta imajinario guztia harresia zeharkatzeko modura bideratu zuen. Ahalegin horretan aritutako bost urte luzeotan Lurraldea denetik egiten saiatu da: Erreferenduma bezalako Pertiga Demokratikoak, adituen Batzordea bezalako legezko taladroak, edo arbitruzkua, Donostiaren historian mobilizaziorik handiena bezalako bultzada legitimoak, etab.

Ahalegin etengabe horretan, mugimendu sozial baten entsaio original, asusart eta berriztatzaileenatakoa, Lurraldea proiektu alternatiboarekin gure erakundea eskailera bat jartzen ahalegindu zen, mugimendu soziala eta Instituzioen artean komunikazioa ahalbideratuko zuena eta sarrera erosoak egin harresiaren alde batetik bestera.

Baina horiekin ere, totalitarioek, defendatzaileek, zaintzaileek eta inposaketaren zaindarien ez zituzten gutxietsi bata besteren atzetik, harresiaren bi aldean artean konponbideak bilatu eta elkar hurbiltzeko ahaleginak.

Bost urte eta bost hilabete pasa dira, eta harresia azkenean erori da. Pitzatu egin da

bost urte t'erdia hauetan izandako presioak eta borondateak Lurraldea mugimendu sozialaren inguruan bildu direlako.

Harresia zeharkatzeko unean genuen motxila, ez dago beteta guk nahi gendukeen adina. Harresia hankaz gora botatzeko ahaleginean zati garrantzitsuak galdu ditugu; baina hala ere, barruan dugunak ahalbideratzen digu harrotasunarekin aldarrikatzea, ahaleginak merezi izan duela. Garaipen ekologiko garrantzitsua lortu dugu, Leitzarango parke naturala salbatu dugu, garaipen sozial eta politikoa garrantzitsua dugu, inposaketaren harresiko sarrera ireki diegulako beste mugimendu ekologiko eta sozialei, eta azkenik, aurrekasu ederra sortzea lortu dugu herri honetan, indarkeria eta enfrontamenduekin

harresia zeharkatu ahal izateko. Hala ere, irekitako zulo horrek, harresi guztiaren sendotasuna ahuldu egiten du behin betirako, eta nahitaezkoa da erortzea. Ez dago atzera bueltatzetik.

Bai, egia da, ikuskizun tamalgarri bat eskeinita, zenbait politiko eta komunikabidek etsi etsian eroritako harresi puska konpondu nahi dutela, ladrilo batzurekin eta igeltsu pixka batekin; baina beren ahalegina epe erdira antzua da, historia eta aurrerakuntzaren kontra doazelako.

Eli Galdos eta EAJ inteligenteak izan dira, etorkizuneko ikuspegia izan dutelako, onartu dutelako inposaketa bidea etorkizuneko bidea dela eta badakitelako historian ezagunak izango direla harresia zulatzea onartu zutelako.

Edonola ere, oraindik ibiltzeko daukagun bidea ez da erraza izango. Uste osoa dugu, nahitaezkoa dela auzia elkarrizketa bidetik konponetzea, eta prest egon behar gara sortuko zaizkigun arazo, zailtasun eta erasoei aurre egiteko.

Zentzu horretan, aurre egin beharko diegu informazio okertze eta manipulazioei. Saitatuko dira gure barruan zatiketak daudela esaten, gure bozeramaleei izen ona kentzen eta, gainera, gure mugimendua etsaitzat hartu eta akordioa murrizketa makiabelikoetara mugatu nahiko dute.

Batzuk, gainera, agian nahi izan gabe, mesede egingo die prentsa eta Estatuko sektore erreakzionarioei; baina hori beraien erantzukizuna da. Okerrena da, akordioari beraiek egin kritikak justifikatzeko, orain beren burua Lurraldea alternatibaren defendatzaile sutsutzat dutela, eta auzia konpontzeko elkarrizketaren aldekoak direla esaten dutela, orain arte inoiz babestu ez dutenean bata zein bestea.

Klase politikoak, gainera, nola ez? eraso garrantzitsuak egingo dizkigu; bietako bat, akordioa babestuko ez balitz, borrokan burubelarri sartuko dira, edo onartzen bada, Lurraldearen porrot gisa aurkeztuko dute.

Lurraldearen iritzi, jakintsuaren pazientzia erabiltzeko garaia da. Etorkizuneko jarrera eta ikuspegi historikoa duen analisia aplikatzeko garaia da. Izugarritzko pausua eman dugu, besarkada handi bat eta lanera.

JONAN FERNANDEZ

LURRALDEA KOORDINAKUNDEkoa
*Erredazioan itzulia




nahastutako auziari irtenbide negoziatua eman bait zaio.

Une historikoa dugu egungoa eta Lurraldea Koordinakundetik egin nahi dugun lehen gauza da, zorionik beroenak ematea mugimendu sozial horri lagundu dioten guztie. Pertsona horien partehartzea, bakoitza bere posibilitateen neurrian, nahitaezkoa izan da. Zuek guztion indarra eta borondateak bota du harresia. Zorionak.

Harresian irekitako zuloa ez da oraindik oso handia; baina nahiko handia da, azkenean

BERRIAK ZIRI



SABINO ORMAZABAL
Autobidearen
erreferendumen aldeko
Batzordekoa
EGIN
1991-VIII-17

«Ulertzen dut
Koordinakundearen jarrera aldaketa
eta lagundu egin behar zaio Galdos
eta Alliren aurrean»



BALTASAR GARZON
Drogaren aurkako fiskala
EL PAIS
1991-VIII-17

«Hiritarren
Segurtasuneko Legeak aberrazio
juridikoak ditu eta Konstituzioaren
aurkakoa da»



ANTXON URRUSOLO
Kazetaria
DEIA
1991-VIII-17

«ETBk
beharrezkoa du desmarkatzea,
konplexurik ez izatea. Bere
nortasuna izatea»



ALEXANDR YACOVLEV
Soviet Batasuneko
lehendakariitzako
aholkulari ohia
DIARIO 16
1991-VIII-17

«PCUSeko
zuzendaritza prestatzen ari da
errebantxa sozialerako eta alderdi
barruan kolpe bat emateko Estatu
kolpea baino lehen»

ZAKILIXUT

© Olariagak

